



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

## LUBERRI KIROL ARETOKO ERABILTZAILE IZATEKO ESKAERA

IZENA eta ABIZENAK: \_\_\_\_\_

NAN-a: \_\_\_\_\_

KONTU ZENBAKIA ETA IBANA: \_\_\_\_\_

JAIOTZE DATA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_

TELEFONOA: \_\_\_\_\_

POSTA ELEKTRONIKOA: \_\_\_\_\_

### ESKATZEN DUT

Zaldibiako LUBERRI KIROL ARETOKO ERABILTZAILE IZATEA eta bertarako sarbidea eskuratzea.

Zaldibian, 2025eko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_ (a)n

SINADURA



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

## MATRIKULAREN IRAUNALDIA ETA ORDAINKETA MODUA

Luberri Kirol Aretoko erabiltzaile izateko matrikularen iraunaldiak honakoak dira. Aukeratu eta markatu dagokion laukitxo.

- Hiruhilekoa. (Ordainketa bakarrean, alta ematerakoan)
- Seihilekoa. (Ordainketa bakarrean edo bitan, alta ematerakoan eta iraupen erdia agortzean)
- Urte osokoa. (Ordainketa bakarrean, bitan edo lautant, alta ematerakoan sei hilean behin edo hiru hilean behin).

### HOBARIAK:

- %50eko hobaria 25 urte azpiko ikaslea izateagatik.
- %50eko hobaria pentsioduna izateagatik.

## ORDAINKETA MODUA

Aukeratu eta markatu ordainketa modua:

- Hiruhileko bonoa 25€: Ordainketa bakarrean, alta ematerakoan

Seihileko bonoa: 40€

- Ordainketa bakarra
- Bitan

Urte osoko bonoa: 70€

- Ordainketa bakarra, alta ematerakoan
- Lautan, hiru hilean behin

Zaldibian, 2025eko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_ (a)n

SINADURA



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

## LUBERRI KIROL ARETOKO ARAUDIA

- **SARBIDEA eta ORDUTEGIA:**
  - Erabiltzaile izateko eskaera egin daiteke Karreane Kultur Etxean, udaletxeko erregistro orokorrean edo *zaldibia.eus* atarian erregistro elektronikoa bidez. Horretarako, eskaera eta konpromiso orria beteko dira.
  - Matrikularen ordainketa egitean, alta emango da eta giltza elektronikoa emango zaio erabiltzaileari. Aurrez giltza elektronikoa duten erabiltzaileei giltza horretan aktibatuko zaie Luberri kirol aretoko baimena.
  - Giltza elektronikoa eskuratzeko 5€ko fidantza jarriko da. Fidantza giltza itzultzean bueltatuko da, eta giltza galduz gero fidantza ere galdu egingo da.
  - Giltzaren jabearen ardura izango da giltzaren erabilera zorrotza egitea, eta arazoren bat izanez gero (ez dabilela, galtzea...) udaletxeko harreran edota Karrean Kultur Etxean jakinaraziko da 24 orduko epean (asteburua bada, lehen lanegunean).
  - Luberri kirol aretoaren ORDUTEGIA:
    - Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 21:00etara, asteazkenetan izan ezik. Asteazkenetan, 19:00etatik 20:15era aretoa Erritmo Kirolekoentzat erreserbatuta egongo da.
    - Larunbat, igande eta jaiegunean: 9:00etatik 21:00etara.
    - Abuztuan: 9:00etatik 21:00etara. 15 egunez itxita egongo da garbiketa sakona egiteko.
  
- **LEHENTASUNAK ETA ERABILTZAILEEN ADINA:**
  - Luberri Kirol aretoko erabiltzaile izateko 16 urte beteta izan beharko dira gutxienez edo urte horretan bete. Hortik beherakoek, elkarte, talde edo eskolak antolatutako ikastaro edo jardueretan parte hartuz salbu, ezingo dute aretoa erabili.
  
- **OHAR OROKORRAK:**
  - Aretoa erabiltzen hasteko derrigorrezkoa izango da harrera-ikastaroa jasotzea; bertan aretoaren erabilera arauak eta makineriarenak azalduko dira. Hau egin ezean, ez da sarbidea aktibatuko.



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

- Kirol ikastaroak eta aretoko gimnasia makinan erabilerarekin lotutako kirol jarduerak baino ez dira onartuko Luberrri aretoan. Salbuespen gisa, udalak bestelako kirol jarduera batzuk egiteko baimena eman dezake.
  - Erabiltzaileak identifikatzea nahitaezkoa da. Horretarako, erabiltzaile bakoitza bere giltzaz sartuko da kirol aretora. Bakoitza arduratuko da bere giltzaz, pertsonala eta transferitu ezina delako.
  - Erabiltzaileak sartzeko beti erabiliko du giltza, nahiz eta atea irekita egon edo beste bazkide erabiltzaile batekin batera sartu.
  - Aretora ezin da sartu ez poltsekin, ez motxilekin, ezta kaleko jantziekin ere. Derrigorrezkoa da kirol-jantziak erabiltzea.
  - Erabiltzaile guztiek izerdia kentzeko beren eskuoihala eramango dute. Gainera, ariketak amaitutakoan, jarlekuak, makinak eta zorua garbitzeko paperezko eskuoihalak eta behar diren materialak erabili beharko dituzte.
  - Entrenamendu kardiobaskularreko makinak beteta badaude, Zaldibiako Udalak finkaturikoa izango da gehieneko erabilera-denbora.
  - Atsedendiak makinetatik kanpo egingo dira.
  - Gimnasioko tresneria erabiltzen duenak bere lekuan utzi beharko du, eta ez lurrean.
  - Derrigorrezkoa da ariketa amaitutakoan erabilitako materiala txukun eta ordenatuta uztea.
  - Ezin da materialik atera aretotik.
  - Derrigorrezkoa da denbora guztian jantzita egotea, hau da, ezin da kamiseta erantzi.
  - Kirol aretoan dagoen musika ekipoa eta baffleak antolatutako eta programatutako ikastaroetan erabiliko dira, eta monitoreak piztuko ditu. Zerbait entzunez ariketa egin nahi duten erabiltzaileek aurikularrak erabiliko dituzte.
  - Debekatuta dago kirol areto osoan jatea edota edatea, hidrataziorako edariak izan ezik.
- **ALDAGELEN ERABILERA:**
    - Aldageletan kaleko arropa erantzi eta kirol arropa jantzi ondoren, norbere objektu guztiak kirol aretoan dauden apaletan utzi beharko ditu, ez aldagelan.
    - Etxetik kirol arroparekin jantzita datozen erabiltzaileak zuzenean kirol aretora sar daitezke, baina horiek ere edukiz gero beren objektu pertsonalak apaletan utzi behar dituzte.
    - Kirola egin ondoren, banakako erabilerarako bi dutxa eta aldagela itxi daude, horietako bat irisgarritasun arauak betetzen dituena.



**ZALDIBIAKO**  
**UDALA**  
zaldibia.eus

- Erabiltzaileek horietako edozein erabil dezakete, kirola egin ondoren dutxatzeko eta aldatzeko.
  
- **LAPURRETAK ETA GALDUTAKO OBJETUAK**
  - Erabiltzaileek euren objektu pertsonalak kirol aretoan dauden apaletan utzi beharko dituzte.
  - Arropa, dirua edo beste edonolako objekturik galdu edo lapurtuz gero, Zaldibiako Udalak ez du erantzukizunik hartuko, inolaz ere. Objektuak edo jantziak galdu dituen pertsona izango da lapurretaren edo galeraren arduradun bakarra.
  - Aldagelan ahaztu edo galdutako arropak hilabeteren buruan eskatzen ez badituzte, birziklatzera bidaliko dira.
  - Objektu baliotsuak udaletxera eramango dira.
  
- **ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK**
  - Identifikatzea nahitaezko da. Erabiltzaileak identifikatzeari uko eginez gero, instalazioetan edo zerbitzuetan sartzeari ukatu daiteke, edota bertatik kanporatu.
  - Kontratatutako zerbitzuak ordaintzeko betebeharra. Erabiltzaile guztiek ordaindu beharko dituzte zerbitzuen tasa edo prezioak, urte horretako ordenantza fiskaletan jasota dagoen bezala.
  - Instalazioak egoki eta arduraz erabiltzeko betebeharra.
  - Gimnasioaren kasuan, erabiltzaileak eskuoihala eraman behar du, ariketak amaitutakoan berak erabili duen makina lehertzeko.
  - Erabiltzaileak instalazioen xederako erabili behar ditu instalazio horiek. Beste edozein erabilera egiteko, aurretik Udalaren baimena jaso behar da.
  - Instalazioetan dauden eremu guztiak komunitarioak dira. Inork ezin izango ditu erabili berarentzat bakarrik.
  
- **DEBEKUAK**
  - Kirol instalazioan erretzea.
  - Instalaziotan jatea edo/eta edatea, hidrataziorako edariak izan ezik.
  - Animaliak sartzeari, gida txakurrak ezik (Indarrean dagoen legeriak zehaztutako baldintzetan).
  - Kirol materiala aretotik ateratzea.
  - Kirol aretoan arropa erantztea.
  - Publizitatea edo propaganda ezartzea, Udalak berariaz baimenduta ez bada.
  - Aldageletan, beste eremuetan bezala, ez da higiene pertsonaleko jarduerak egiten utziko: bizarra egin, depilatu, azkazalak moztu eta abar.



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

- Kirol instalazioko edozein gunetan beirazko, kristalezko edo metaleko ontziekin sartzeara.
- Ekipamendua apurtu, erabiltzaileak zauritu, edo horien lasaitasuna eten dezakeen edozein objektu edo elementu sartzeara.
- **ARAU-HAUSTEAK**
  - Araudi honek jasotzen ez dituen egoeretan, erabiltzaileek kasu egin behar diete instalazioko araudiei edo bertan ager daitekeen Udal langileari, eta baliabideak errespetuz eta zentzuz partekatu beharko dituzte.
  - Erabiltzaileek instalazioak gaizki erabiliz gero, eragin ditzaketen kalteen erantzule izango dira.
  - Udal kirol zerbitzuko araudi hauek betetzen ez badira, edota, erabiltzailearen baten erabilera desegokia dela-eta, Udalak eskuduntza osoa izango du batetik kalte-ordainak eskatzeko eta bestetik erabiltzaile zehatzei erabilera ukatzeko.
  - Araudi honetan bildutako arauak ez betetzea arau-haustetzat joko da, eta, hortaz, zigorra ezarri ahal izango da. Zigortzeko eskumena duen organoari jakinaraziko zaio gertatutakoa.
  - Zigor erregimen hau instalazio barrura sartzen den pertsona orori aplikagarria izango da, erabiltzailea izan edo ez.

Arau-hauste oso larria. Jokabide hauek joko dira arau-hauste oso larritzat:

- a) Kirol instalazioak zein bertan emandako zerbitzuren bat erabiltzeko eskubidea duten beste pertsona batzuei erabiltzea eragoztearaz.
- b) Kirol instalazioaren ohiko funtzionamendua eragoztearaz edo horretarako trabak jartzea.
- c) Eraikina edo bertako instalazio, ekipamendu, azpiegitura edo osagaiak hondatu edo horiei kalteak eragitea, baldin eta 300,00 euro edo gehiago balio badute.
- d) Kirol instalazioa erabiltzen ari diren pertsonen nahiz bertako langileei fisikoki eraso egitea
- e) Bi arau-hauste larri edo gehiago metatzea.

Arau-hauste larria. Jokabide hauek joko dira arau-hauste larritzat:

- a) Kirol instalazioetako zerbitzu eta espazioetan elkarbizitza nahastea.
- b) Kirol instalazioen nahiz haiek ematen dituzten zerbitzuen funtzionamendua nahastea, zerbitzu horien berriarazko



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

arauak ez betetzea eta ordenantza honetan jasotakoak ez betetzea.

- c) Kirol instalazioetako zerbitzu eta espazioak egoki ez erabiltzea eta baimendutako jardueraz bestelakoak egitea.
- d) Zerbitzuetara ezarritako prezio publikoa edo tasa ordaindu gabe sartzea.
- e) Kirol instalazioetako instalazio, ekipamendu, azpiegitura edo osagaietan kalteak eragitea, baldin eta 300,00 eurotik beherakoak badira.
- f) Kirol instalazioa erabiltzen ari diren pertsonak nahiz bertako langileak iraintzea
- g) Bi arau-hauste arin edo gehiago metatzea.
- h) Norberak eragindako kalteen berri ez ematea.
- i) Ordutegiz kanpo sartzea.

Arau-hauste arina. Jokabide hauek joko dira arau-hauste arintzat:

- a) Jarduera edo zerbitzuen arduradunen aginduei jaramon ez egitea.
- b) Zalaparta sortzea edo jarduerak eteten dituen beste edozein ekintza aritzea.

- **ARAU-HAUSTEEN AURREAN, ZUHURTZIAZKO NEURRIAK**

- Zuhurtziazko neurri gisa, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jo daitezkeen jokaerak dituzten erabiltzaileak zentrotik egotzi ahalko dira, segidako hamar egunez gehienez.
- Eragindakoei entzun eta gero, arduradunak zuhurtziazko neurria aldatzeko proposa dezake, dela arintzeko dela gogortzeko, egoeraren larritasuna kontuan izanik; Udalak beharrezko legezko ekintzak bideratzeko eskubidea izango du.
- Abonamenduak edo giltzak denbora batez kendu ahalko dizkiete arau-hauste larriak edo oso larriak egin dituzten pertsoneri.

- **ZIGORRAK**

- Arau-hauste oso larrien kasuan 500,01€ eta 1.000€ bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile izateko eskubidea behin betiko galduko da.
- Arau-hauste larrien kasuan 300,01€ eta 500€ bitarteko isunak jarriko dira, eta erabiltzaile, abonatu edo bazkide izateko eskubidea behin- behineko galduko da.
- Arau-hauste arinen kasuan 300€ arteko isunak jarriko dira, eta ohartarazpena egingo da.



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

- Zigorra ezartzeaz gain, arau-hausleari berak eraldatutako egoera lehengoan uzteko eska dakioke, bai eta sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.
  - Udal jabetzako ondareei kalterik eginez gero, udal zerbitzu teknikoek konponketaren zenbatekoa zehaztuko dute, eta arau-hausleari edo haren ordeaz erantzun behar duenari jakinaraziko dio, ezartzen den epean ordain dezan.
  - Auzien ezaugarriak halakorik eskatzen badu, zigortzeko neurriak landu eta ezartzearekin batera, hezkuntza ekimenak abiaraziko dira, arau-hausleei zuzendutako prebentzio programen bitartez.
- **BAJA EMATEAK**
    - Baja eskaera egiteko, Udaletxeko Erregistro Orokorrean (presentzialki edo online) edo Karreane Kultur Etxean baja eskaera beteko da.
    - Une horretan giltzan sarbide baimena kenduko da.
    - Hiruhileko erabiltzaile baimenen kasuan ez da diru itzulketarik egingo. Seihileko edo urtebeteko baimenen kasuan, baja eskaera iraupen erdia bete aurretik egin bada, erdia itzuliko da. Ondoren egin bada, ez da itzuliko.
  - **KEXAK ETA IRADOKIZUNAK**
    - Luberri Kirol Aretoko erabiltzaileek etengabeko hobekuntzan lagun dezakete zerbitzuaren inguruko iradokizunak eta kexak Karreane Kultur Etxean aurkeztuta edo [kulturetxea@zaldibia.eus](mailto:kulturetxea@zaldibia.eus) helbidera bidalita.





ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

NI, \_\_\_\_\_, KONPROMETITZEN NAIZ

1. Luberri Kirol Aretoko arauak errespetatzera.
2. Kirol aretoko beste erabiltzaileak eta langileak errespetuz tratatzera.
3. Kirol aretoa eta bertako materialak egoki erabiltzera, eta garbi eta egoera onean mantentzen laguntzera.
4. Sarrera baimena duen giltza elektronikoa zaintzera eta galduz gero, berehala Karreane Kultur etxean edo udaletxean jakinaraztera, giltza baliogabetzeko.
5. Giltza neuk izatera eta beste inori ez uztera.

Zaldibian, 2025eko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_ (a)n

SINADURA